

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Terrorismoaren Aurkako EBren koordinatzaileak Foru Gobernuak terrorismoaren biktimen alde egindako lana goretsi du

Barcina Lehendakariak biktimen kolektiboa aintzatesteko egindako "Relatos de Plomo" proiektua aurkeztu dio Europako arduradunari.

Miércoles, 02 de abril de 2014

Gilles de Kerchove Terrorismoaren Aurkako Politikaren Europar Batasunaren koordinatzaileak Nafarroako Gobernuak terrorismoaren biktimen alde egin duen lana goretsi du, eta azpimarratu du ezinbestekoa dela lan hori egitea Europar terrorismoaren aurkako hurbiltzen diren erradikalizazio-mugimenduak eta estremismoa saihesteko.



Barcina Lehendakaria Terrorismoaren Aurkako Politikaren EBren koordinatzailearekin elkartu da Bruselan.

Horixe esan du Europar Batasuneko arduradunak Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariarekin Europako Kontseiluan izan duen elkarrizketan. Lehendakariak terrorismoaren biktimak aintzatesteko ["Relatos de plomo"](#) proiektua aurkeztu dio.

Gilles de Kerchove koordinatzaileak esan duenez, Nafarroako Gobernuak sustatutako proiektua "garrantzi handikoa da bi arrazoiengatik. Lehenengo eta behin, "biktimei zor diegulako" eta, bigarrenik, gazteen erradikalizazioa saihesteko "funtsezkoa" delako.

"Proiektuak argi uzten du terrorismoa ez dela ideien kontua, ekintza kriminala baizik --baiezatu du--. Horregatik, ezinbestekoa da historia gertatu zen bezala kontatzea, gazteek uler dezaten terrorismoak ez duela zerikusirik ideien aldeko borrokarekin, krimenak besterik ez direla".

Horren harira, terrorismoaren historia "berridaztea eta desitxuratzea" ekiditearen garrantzia ere nabarmendu du.

Amaitzeko, Europako koordinatzailea "Relatos de plomo" proiektuan lankidetzan aritzeko prest agertu da, zabal eta heda dadin.